

Aurten German Rodriguezen hilketaren 45. urteurrena izango da

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 07/07/2023

Urtero bezala omenaldi bat egingo zaio uztailaren 8an

Aurten Uztailaren 8an 13,00etan Germanen hilarriaren ondoan izango da San Ferminak 78 gogoan antolatutako omenaldia.

German Rodriguez Saiz 1978ko Sanferminetan poliziak hil zuen ezkertiar ekintzaile gaztea izan zen. Gazte-gaztetik hasi zen militantzia politikoan; *Hemen eta Han* mendi taldetik ETA erakundera pasa zen oraindik ikasle zela. Seigarren asanblada gertatu zenean korrante honen alde egin zuen eta hainbat ardura izan zituen sextakoen artean, geroago Liga Komunista Iraultzailera batuko zen erakundean. Iruñerrian 1973an izan zen greba orokorrean buru belarri aritu zen eta urte horretako ekainaren 20an lehen aldiz atxilotu zuen poliziak. Hainbat hilabetez preso egon ondoren Bilbon ibili zen denbora batez propaganda klandestinoak egiten eta Franco hiltzean Iruñera bueltatu zen. Buruzagitza politikotik aldendu zen arren, ikasle eta auzo mugimenduetan lanean jarraitu zuen German Rodriguezek.

1978ko uztailaren 8an polizia Iruñeko zezen plazara sartu zen amnistiaren aldeko pankarta bat zabaltzeko zela aitzakia hartuta. Eraso gogor horren ostean istilu larriak izan ziren hirian barrena. German Rodríguez istilu horietan hil zen poliziaren bala batek buruan jo zionean, Karlos III.a etorbidea eta Orreaga kalea gurutzatzen diren lekuan. Hilketak honek eragin nabarmena izan zuen hurrengo egunetan Euskal Herri osoan.

Iruñeko peñek eta hainbat elkartek antolatuta, urtero uztailaren 8an German Rodriguezen oroitarrian omenaldia egiten zaio hil zuten lekuan. Bertan hilarri bat dago gertaera hura gogoratzeko eta duela gutxi Iruñeko Udalak kendu egin bazuen ere, udalbatzak eta herritarren oposizioak monumentua berriz jarrarazi zuten.

<https://eh.lahaine.org/aurten-german-rodriguezen-hilketaren-45>